

PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD  
MAYORES DE 25 Y 45 AÑOS

# PRUEBA COMÚN

## PRUEBA 201&



**EUSKARA**

PRUEBA

SOLUCIONARIO





## Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu.

Galdera bakoitzaren bukaeran adierazten da zenbat balio duen.

**Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.**

### TITIRITEROARENA

Ezagutzen dut tipo bat titiritero izateko bokazioa izan duena betidanik. Beti zen kexu, umeen aurrean bere bertuteak erakusteko aukera ematen ez ziotelako. Eguna iritsi zenean, teatro eramangarria hartu eta plazan paratu zen. Parean, dozenaka ume, istorio eder bat ikusteko irrikitan. Ikuskizuna hasi zenean, nire lagunak txotxongilo pare atera zuen oholtzara, eta hizketan jarri zituen, bakoitzari ahots bat emanez. Baina segituan antzeman zen bi pertsonaia horien arteko hizketaldia kalaka hutsa zela, helbururik gabea. Umeak aspertzen hasi ziren, eta berehala iritsi zen matxinada. Batzuk teatroaren atzera abiatu ziren, piztia gosetiak, gezurrezko pertsonaia horien atzean nor zegoen jakiteko irrikaz, iruzurtiari aurpegia ikusteko xede errukigabea. Une batez nire laguna ikusi nuen, lurtean belauniko, gortinen atzean sartutako umei zeharka begira, kopeta izerdituta, txotxongiloak dantzatzeari utzi gabe, falsete barregarri hura oihukatuz, egoskortuta. Zer egin behar zuen? Korrika alde egitea ez zen itxuroso, baina oldarraldi hari eustea ezinezkoa zen... Azkenean, ez bata ez bestea, ikuskizuna kaos bilakatu zen; hura han belauniko eta umeak trufaka.

Fikzioaren magia da, amerikarrek lehen 30 segundoen froga deitzen dutena: lehen begi kolpean ikuslearen sinesgarritasuna irabazten baduzu, erraz konta dezakezu elefanteek hegan egiten dutela, balea handi batek ontzi bat irentsi duela, edota igela printze bilakatu zela, musu bati esker. Dena da sinesgarri, sinesgarri denean. Zerbait esentziala esateko xedez sortzen ditugu istorioak. Istorioak beste zerbait kontatzeko aitzakia dira beti. Edo ia beti. Baina beste batzuetan aitzakia badaukagu, baina ez esentzia. Ez dakigu zer den kontatu nahi duguna, ezpada tarraka hitzak elkarren aldamenean josi nahi ditugula, kaligrafia ikasten ari den haurren mekanikotasunaz, hustuta, mutu, antzu.

Milan Kunderak, hain zuzen, “*El telón*” liburuan esan zuen idazleak ez lukeela besteak baino hobe idazteko idatzi behar, besteak esan ez dutena esateko baino, besteak deskubritu ez dutena deskubritzeko. Nolabait esan, istorio batek egia bat gorde behar du beti. Baina ez da beti hala izaten. Batzuetan idazleak, hain justu, besteak kontatu duten horixe kontatzeko idazten du, besteen egia berea balitz bezala, eta orduan falsete ahotsa jartzen du, eta bi panpina kalakari. Horietan, ez da harrizkoa umeak teatro atzean zer ote dagoen ikustearren oldartzea. Gezurra deskubritzea.

(Lander Garrok “Berria” egunkarian 2011ko urtarrilaren 2an argitaratutako artikulutik moldatua)



## GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (igorlea, hartzailea, erabilera-eremua, testu-tipoa, testu-generoa ...) eta arrazoitu zeure erantzuna. (2 puntu)
2. Zein da testuaren helburua? (1 puntu)
  - a. Adieraztea hurrak engainatzea ez dela erraza lehen 30 segundoen froga ondo erabiltzen ez bada.
  - b. Idazle baten zeregina zein izan beharko litzatekeen adieraztea.
  - c. Idazleen lanak eta titiriteroenak edo antzerkigileenak zeinen antzeko izan daitezkeen ilustratzea.
3. Testua hiru paragrafoan antolatuta dago. Hurrengo taulan adierazi paragrafo horietako bakoitzaren gai nagusia esaldi labur baten bidez. (2 puntu)

Paragrafoa	Gai nagusia
1. paragrafoa	
2. Paragrafoa	
3. Paragrafoa	

4. Esan testuan grisez nabarmenduta dauden espresioek zer esan nahi duten testuinguru horretan. (2 puntu)

Espresioa
“kalaka hutsa”
“piztia gosetia”
“falsete barregarri”
“lehen 30 segundoen froga”
“hustuta, mutu, antzu”

Esanahia



5. Eman testuan azpimarratuta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (2 puntu)

<u>bertuteak</u>	
<u>irrikitan</u>	
<u>iruzurtiari</u>	
<u>itxuroso</u>	
<u>tarraka</u>	
<u>deskubritu</u>	
<u>kalakari</u>	
<u>oldartzea</u>	

6. Testuko azken paragrafoan ageri dira bi hitz bereziki nabarmenduak (horrela ageri dira jatorrizko testuan), bata letra etzanaz eta komatxoaren artean eta bestea letra etzanaz. Azal ezazu zergatik nabarmendu dituen horrela idazleak. (1 puntu)

Nabarmendutako hitzak
<i>"El telón"</i>
<i>falsete</i>

Arrazoiak



## PROBAREN ERANTZUNAK EUSKARA (2012ko maiatza)

### Argibideak

Probaren iraupena: 45 minutu.

Galdera bakoitzaren bukaeran adierazten da zenbat balio duen.

**Irakurri honako testua eta erantzun testuaren ostean datozen galderak.**

### TITIRITEROARENA

Ezagutzen dut tipo bat titiritero izateko bokazioa izan duena betidanik. Beti zen kexu, umeen aurrean bere bertuteak erakusteko aukera ematen ez ziotelako. Eguna iritsi zenean, teatro eramangarria hartu eta plazan paratu zen. Parean, dozenaka ume, istorio eder bat ikusteko irrikitan. Ikuskizuna hasi zenean, nire lagunak txotxongilo pare atera zuen oholtzara, eta hizketan jarri zituen, bakoitzari ahots bat emanez. Baina segituan antzeman zen bi pertsonaia horien arteko hizketaldia kalaka hutsa zela, helbururik gabea. Umeak aspertzen hasi ziren, eta berehala iritsi zen matxinada. Batzuk teatroaren atzera abiatu ziren, piztia gosetiak, gezurrezko pertsonaia horien atzean nor zegoen jakiteko irrikaz, iruzurtiari aurpegia ikusteko xede errukigabea. Une batez nire laguna ikusi nuen, lurrian belauniko, gortinen atzean sartutako umei zeharka begira, kopeta izerdituta, txotxongiloak dantzatzeari utzi gabe, falsete barregarri hura oihukatuz, egoskortuta. Zer egin behar zuen? Korrika alde egitea ez zen ixuroso, baina oldarraldi hari eustea ezinezkoa zen... Azkenean, ez bata ez bestea, ikuskizuna kaos bilakatu zen; hura han belauniko eta umeak trufaka.

Fikzioaren magia da, amerikarrek lehen 30 segundoen froga deitzen dutena: lehen begi kolpean ikuslearen sinesgarritasuna irabazten baduzu, erraz konta dezakezu elefanteek hegan egiten dutela, balea handi batek ontzi bat irentsi duela, edota igela printze bilakatu zela, musu bati esker. Dena da sinesgarri, sinesgarri denean. Zerbait esentziala esateko xedez sortzen ditugu istorioak. Istorioak beste zerbait kontatzeko aitzakia dira beti. Edo ia beti. Baina beste batzuetan aitzakia badaukagu, baina ez esentzia. Ez dakigu zer den kontatu nahi duguna, ezpada tarraka hitzak elkarren aldamenean josi nahi ditugula, kaligrafia ikasten ari den haurren mekanikotasunaz, hustuta, mutu, antzu.

Milan Kunderak, hain zuzen, “*El telón*” liburuan esan zuen idazleak ez lukeela besteak baino hobe idazteko idatzi behar, besteak esan ez dutena esateko baino, besteak deskubritu ez dutena deskubritzeko. Nolabait esan, istorio batek egia bat gorde behar du beti. Baina ez da beti hala izaten. Batzuetan idazleak, hain justu, besteak kontatu duten horixe kontatzeko idazten du, besteen egia berea balitz bezala, eta orduan falsete ahotsa jartzen du, eta bi panpina kalakari. Horietan, ez da harrizkoa umeak teatro atzean zer ote dagoen ikustearren oldartzea. Gezurra deskubritzea.

(Lander Garrok “Berria” egunkarian 2011ko urtarrilaren 2an argitaratutako artikulutik moldatua)



## GALDERAK

1. Testua sortu den egoera komunikatiboaren ezaugarriak deskribatu (igorlea, hartzailea, erabilera-eremua, testu-tipoa, testu-generoa ...) eta arrazoitu zeure erantzuna. (2 puntu)

*Testu hau kazetaritzakoa da, eta zehatzago esanda zutabea, hau da periodikoki kazetari batek idazten duen artikulua bat egunkari edo aldizkari batean bere iritzia edo hausnarketa kontatzeko. Hartzailea aldizkari hori irakurtzen duen publiko orokorra da, hau da, ez da hartzaile espezializatu edo espezifikoa, eta izatekotan, beharbada kulturarekin interesatua dagoen irakurlea. Argudiozko testua da, nahiz eta testu narratiboaren elementuak ere badituen; izan ere, lehen paragrafoan adiskide bati gertatutako pasadizoa kontatzen du.*

2. Zein da testuaren helburua? (1 puntu)
  - a. Adieraztea haurrak engainatzea ez dela erraza lehen 30 segundoen froga ondo erabiltzen ez bada.
  - b. Idazle baten zeregina zein izan beharko litzatekeen adieraztea.**
  - c. Idazleen lanak eta titiriteroenak edo antzerkigileenak zeinen antzeko izan daitezkeen ilustratzea.
3. Testua hiru paragrafoan antolatuta dago. Hurrengo taulan adierazi paragrafo horietako bakoitzaren gai nagusia esaldi labur baten bidez. (2 puntu)

Paragrafoa	Gai nagusia
1. paragrafoa	<i>Idazlearen adiskideari gertatutako pasadizoa kontatzen du geroko hausnarketari bide ematen diona.</i>
2. paragrafoa	<i>Idazleak kontakizun baten sinesgarritasunaz hausnarketa egiten du.</i>
3. paragrafoa	<i>Azken paragrafoan idazleak lan literarioa darama bere hausnarketa eta ondorioa aurkezten du.</i>



4. Esan testuan grisez nabarmendutako espresioek zer esan nahi duten testuinguru horretan. (2 puntu)

Espresioa	Esanahia
“kalaka hutsa”	<i>Sentidurik gabeko hitzen segida / helbururik gabeko hizketaldia</i>
“piztia gosetia”	<i>Metafora honek umeen jarrera oldarkorra adierazi nahi du.</i>
“falsete barregarri”	<i>Titiriteroek ipintzen duten ahots berezia pertsonaia ezberdinak interpretatzeko. Hemen barregarri hitza erabiltzen da deskribatzen den egoera bitxia azpimarratzeko.</i>
“lehen 30 segundoen froga”	<i>Antzezpen baten hasierako momentuak, ikusle goaren arreta erakartzeko erabakiorrak izan ohi direnak.</i>
“hustuta, mutu, antzu”	<i>Hiru adjektibo hauek testuko hitzek ez dutela ezer adierazten azpimarratu nahi dute.</i>

5. Eman testuan azpimarratuta dauden hitz hauen sinonimoak edo baliokideak, testuan duten esanahia kontuan hartuta. (2 puntu)

<u>bertuteak</u>	dohainak, gaitasunak, trebetasunak ...
<u>irrikitan</u>	desiratzen, antsiatzen, gogo biziz ...
<u>iruzurtiari</u>	gezurtiari, tranpatiari, faltsuari ...
<u>itxuroso</u>	duin, ganorazko, itxurazko ...
<u>tarraka</u>	herrestan, arrastaka, narraz ...
<u>deskubritu</u>	aurkitu, ediren, kausitu ...
<u>kalakari</u>	berritsu, hitzontzi, berbontzi ...
<u>oldartzea</u>	jazartzea, errebelatzea, erasotzea ...



6. Testuko azken paragrafoan ageri dira bi hitz bereziki nabarmenduak (horrela ageri dira jatorrizko testuan), bata letra etzanaz eta komatxoaren artean eta bestea letra etzanaz. Azal ezazu zergatik nabarmendu dituen horrela idazleak. (1 puntu)

Nabarmendutako hitzak
"El telón"
falsete

Arrazoiak
<i>Liburu baten titulua da, eta tituluak edo aipamen literalak erabiltzen direnean komatxoaren artean adierazten dira.</i>
<i>Hitz hau kontestutik kanpora dago erabilita toki horretan, izan ere testu idatzi batez ari da, eta bertan ez dago soinurik. Modu horretan bereizi egiten da hitza irakurlea konturatzeko nahita erabiltzen dela zerbait iradokitzeko, kasu honetan, hain zuzen ere, hausnarketari bide eman dion pasadizoa.</i>